

# Amona, zure Iholdi

## Arratsaldeko bostak

Amona, sekretu handi bat daukat eta ez dakit nori kontatu.

Zeruan zaudela esaten didate, eta ni batzuetan, zeruari begira geratzen naiz, batez ere hegazkinak pasatzen direnean. Orduan pentsatzen dut hegazkinen joan-etorri horiek zuzentzen jarri zaituela Jainkoak, udaltzainak kaleetan egoten diren bezalaxe, lehenago ere ezin baitzenuen ezer egin gabe egon eta zeruan ere seguru lanean zaudela, eta guri begira, niri begira ere bai, ea zintzoa naizen, lehenago bezala. Ziur aski, noiz behinka behera so egingo duzu, ea zuk hainbeste maite zenituen etxeko geranioak ureztatzen ditudan, ea Jeronimo gardantxiloari alpistea jarri diodan, ea eskolako lanak egiten ditudan, zauden lekutik den-dena ikusteko aukera baituzu.

Horregatik, badakit jakingo duzula zertaz arituko naizen, baina nik nahiago dut guzti-guztia zuri pertsonalki kontatu ea, besteetan bezala, aholkuren bat ematen didazun, zeren nahiz eta den-dena ikusten duzun zauden lekutik, agian, ez duzu oso garbi ikusten altuera hartatik, inurriak gabela irudituko zaizu eta zaila egingo zaizu lurreko haurren artean ni bereiztea, are zailagoa nire bihotzean dagoen kezka, batez ere zerutik iragaten diren hegazkin pilo horregatik, haien arteko istripurik ez izatea ardura garrantzitsua baita.

Bada, amona, atzo ikastolatik bueltan, Martinek esan zidan ea gauza bat ikusi nahi nuen, inoiz ikusi ez neukana

Eta nik berari, ea zer zen.

Eta berak, esateko gauza ez zela, ikustekoa baizik.

Eta irribarre arraroaz begiratzen zidan, asko dakienarena eginez, eta horrek amorrazio piskat ere eman zidan, zer uste du horrek, eta joan egin nintzela esan nion.

Eta parkera eraman ninduen, ttikia nintzenean askotan zurekin joaten nintzen parke berberara eta gogoan izango duzu nola han urmael handi bat dagoen, ahate, zisne eta sahats negarti batekin, ezta? Papertxoriak egiten ikasi nuenean hara joaten nintzen uretara botatzera eta orduan, zuk

esan egiten zenidan hura ez zela egin behar, papertxori haiek molestatu egiten ziela altxor bila zebiltzan ahatetxoei. Eta hark asko harritu ninduen eta zuk urrezko eraztuna ur azpian aurkitu zuen ahatetxoaren istorioa kontatzen zenidan, gogoratzen al zara? Bada, urmael hartatik gertu usategi bat ere badago, egurrezko errota ematen duena, usoak etortzen badira babeslekuren bat izan dezaten, baina nik ez dut sekula uso bat han sartzen ikusi, beti dabilta haurrek botatzen dizkieten ogi apurrak jaten eta horrela.

Bada amona, esaten nizun bezala, usategi hartan sartu nintzen Martinekin atzo arratsaldean, eta hasieran ez genuen ezer ikusten, egurrezko etxetxo horrek goialdean lehio ttiki-ttikiak ditu eta.

Orain pentsatuko duzu ea usategi hori itxita egoten bada, eta inork ez badaki zertarako dagoen parkean usoak hara joaten ez badira, nola eta zergatik sartu ginen gu barrura. Ba, Martinek hala nahi izan zuelako. Patrikatik alanbre moduko ziria atera eta, lapurrak telebistako filmeetan bezala, kris-kris-kris, ateko zerrailari eragin zion, eta atea zabaldu zuen nire harridurarako.

Gogoan izango duzu nolakoa den nire lehengusu Martin, lehenago ere lan handia ematen zizun etxera etortzen zenean- eta, bada orain berdin segitzen du edota okerrago, beti ari da abenturatan pentsatzen, beti barrabaskeriak egiten, dena ikertu, miatu, arakatu egin behar du... ez da inoiz lasai egoten eta berarekin jolastea batzuetan dibertigarria izaten da, baina besteetan harrosko jarri eta nahikoa petrala izaten da. Baina, nola lehengusuak garen eta ikasgela berean gauden, ba askotan ibiltzen gara elkarrekin, batez ere eskolatik irtetean, etxeko lanak egitera etxera etortzen delako. Bihotz onekoa baina alferrontzi galanta dela esaten du andereinoak, eta berari laguntzeko eskatzen dit askotan. Eta nik, batzuetan asko maite dut, eta besteetan ez. Orain, esaterako, ez dut batere maite eta orain adieraziko dizut zergatik.

Esaten nizun bezala, atea zabaltzearena ez zen ezer izan hurrengoarekin konparatuta. Martinek linterna bat atera zuen bere motxilatik, eta nik galdetu nion zertarako zen eta berak ez zidan ezer ere erantzun, eta urduri nengoen ez nekien zergatik, eta zerbait txarra egiten ari denaren sentsazioa neukan, zuri gezurren bat esaten nizu-



Irudia: Elena Odriozola

netan bezala. Martinek, begiak hersteke eta paretari begira ezartzeko agindu zidan, eta, tartean, lurrean arakatzan ari zela somatu nuen. Eta ni gero eta urduriago, han egotea trasteleku ilun eta nazkagarri batean katibu egotea bezalakoxea zen, eta Martin beti ari delako bihurrikeriatan pentsatzen...

Eta, bapatean, jira egiteko eta begiak zabaltzeko agindu zidan. -Alto! Geldi hor!

Orduan, amona, Martinek pistola batekin apuntatzen ninduela ikusi nuen, edo hobeto esanda, hasieran linternaren argiak itsutu ninduen eta gero, beste eskuan pistola bat zuela ikusi nuen. Eta gero, pum! pum! pum! oihu egin zidan, eta gero, ja! ja!ja! ... barre-algaraka hasi, eta benetazko pistola bat zen, hori da okerrera, jostailu bat ez zela, horretaz berehala konturatu nintzen. Geroxeago, pistola hartzeko lasai, eskaini zidan berak, eta nik hasieran ezetz, handik alde egin nahi nuela baina, azkenean, kuriotsitatearengatik edo, neuk ere pistola hura nire eskuetan hartu nuen, dexente pisatzen zuen, eta beltz-beltza zen, ikaragarria.

- Zer iruditzen zain? Ez al dun guai?

Bezperan sartu zela usategi hartan, eta beste gauzen artean hura aurkitu zuela. Handik aurrera, polizia eta lapurretara jolastuko genukeela, nik linternari eusteko ea berak usategian arma gehiago aurkitzen zuen. Eta nik, hasieran ezetz, badakida-

lako armekin jostatzea arriskugarria dela, haur asko hil omen direla horrela, eta berak, ez izateko kakatia, ez izateko neska guztiak bezalakoxea...

Ea balak zituen, nik nire izua disimulatuz...

Noski! Erantzun zidan berak harro-harro.

Ai, amona! Ez nekien zer egin. Batetik, ez nuen bere aurrean neska kakatia bezala agertu nahi, baina, bestetik, hankak nituen beldurrez dardarka...

- Utzi pistola hori edo bestela, andereñoari esango zioat!

Hori da, azkenean, nik esan niona. Baina, orduan, Martinek irribarre egin zuen. Oso irribarre berezia, hain ondo ezagutzen dudan mehatxu-irribarra... Isildu egin nintzen eta begiak lurrerantz jaitsi. Akabo, nire itxurazko ziurtasuna! Irribarre hark pistolak berak baino gehiago kokildu ninduen, Martinen menpeko bihurtzen baininduen.

Eta orain, ziur asko amona, galdetuko diozu zeure buruari zergatik mehatxatu behar ninduen Martinek, eta batez ere, nolatan eta zergatik isildu eta kokildu nintzen neu. Eta nik gogorarazi behar dizut, orain dela urte pare bat edo, gertatu zena. Oroitzen al zara?

Osaba Andoni eta izeba Mertxeren ezkontza-egunekoa aipatu beharko dizut. Nola joan ginen Bilbora familia guztia eta eguna espezial pasa genuela: festa izugarria izan zen niretzat eta poz pozik ibili nintzela, oheratzeko ordua heldu zen arte. Hotelean nahikoa lekurik ez zegoela eta gela berean lo egitera egokitu zitzaigun lehengusu-lehengusina batzuei: Iñaki, Maixabel, Elisabete, Pedro Mari ... eta Martin bera. Hasieran ondo, barre asko egin genuelako, eta sekulako burko-borroka izan genuelako, barrez lehertzekoa, baina goizean...

- Iholdik pixa egin du!

Bai, amona, gau hartan, berriro pixa egin nuen ohean. Konturatu gabe. Ni ez naiz ohartzen, baina batzuetan, hori gertatzen zait: esnatu eta maindireak bustita aurkitzen ditut. Zer lotsa! Eta, egun horretan, denak konturatu ziren. Maixabel izan zen alarma oihua bota zuena, ohe berean geundelako. Eta denak isekaka, trufaka, burlaka... Eta besteengatik, tira, ez zitzaidan gehiegi axola, baina Martin nire ikasgelakide zen eta hori okerragoa zen, askoz ere okerragoa, ohean pixa egiten nuela lau haizetara aldarrikatu zezakeelako ikastolan.

Ez esateko inor eskatu nion Martini, baina, bai zera! Geroztik, Martinek mehatxatu egiten nau, xantaia egiten dit. Ez dut uste, hori salatze-

gauza izango denik, baina ... ez naiz gehiegi fio. Horregatik, nigandik zerbait lortu nahi duenean, ikastolakoei pixontzi bat naizela esango diela, oihi egiten dit irribarre txikiaz: pixontzi!, marmartu eta nahikoa da ni bere esanetara makurtzeko. Zer lotsa! Eskolakideek hori jakingo dutela pentsatze hutsak lotsa-lotsa eginda uzten nau.

Eta hori, amona, ez dut nahi. Inola ere ez. Gainera, orain, ia-ia ez zait apenas hori gertatzen, baina Martinek mehatxu hori botatzen jarraitzen du, eta nik bada ez bada...

-Gelako guztiei pixontzi bat haizela esango zienat!

Atzo ere, hori bota zidan. Iribarre hark hura gogorarazi nahi zidan: batzuetan, gauez, ohean pixa egiten dudala, ez ahazteko.

Eta horregatik isildu nintzen.

Eta horregatik amore eman nion eta pistola harekin jostatzeraz prestatu. -Besoak gora! Hau lapurrera dun!

Eta besoak altxatu nituen.

-Erne, bestela hireak egin dun!

Horrela lau zpabost aldiz. Ez zekien zer gehiago egin pistola beldurgarri harekin. Batzuetan lapurra, besteetan polizia, tarteka terrorista edota bahitzaile... baina beti pistola beldurgarri harekin. Eta ni, mutu. Neska pixontzi bat naizelako.

Gero usategiko zolua arakutzen lagundu nion, eta han zeuden traste guztiak ere miatu genituen, baina ez genuen arma gehiagorik aurkitu. Eta berak esan dit, egunero, joango garela pistolarekin jolastera, gure arteko sekretua zela hura, sekreturik sekretuena, inori ez niola ezer esan behar, bestela...

Eta nik, amona, ez dut horretara jolastu nahi, izu handia sentitzen dudalako, arriskugarria delako. Baina ez dut pixa egiten dudala inork jakin dezala, nahigabe gertatzen baitzait. noizbehinka eta konturatu gabe gainera.

## Hurrengo eguna.

### Gaueko hamarrak.

Eskerrik asko, amona!

Gaur zuk proposatutakoa egin dut, eta dena ondo joan da.

Eskolara joan baino lehen parkera joan naiz, gako batez usategiko atea zabaldu, pistola utzi genuen gordelekutik hartu eta motxilan sartu nuen.

Gero, usategiko atea berriro itxi nuen, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Zuk esandakoa bezala.

Inor ez zebilen ordu horretan urmael inguruan. Zisneak, beti bezala, uretan flotatzen tente-tente. Ahateak, berriz, lo seko, buruak lumen artean sartuta. Zorte handia izan dut.

Amen batean, pistola motxilatik atera eta uretara bota dut, sahas negartia dagoen lekuan hain zuzen, lekurik ezkutuenean, ur gaintetik ez da ezer ere ikusten. Denbora asko pasako da norbaitek arma hori aurkitzen duenerako eta gainera, ordurako, urak hondatutakoa egongo da.

Eta, arratsaldean, eskolatik bueltan parkeko usategira joan garenean, Martin ia erotu egin da pistolarik ez zegoela konturatzean. Nik zeharo harrituta dagoenaren planta egin dut, inuzente aurpegiarekin. Oso ondo, nioen nire artean. Oso ondo egin dun, lholdi, esaten nion nire buruari. Begira eta begira ihardun dugu, baina ezer ere ez. Gero, Martin, asper asper eginda, gorde gordeketara jolasteko proposatu dit, eta nik uste dut berak ere, barru-barrutik, lasaitu ederra hartu duela pistola ez delako agertu. Hala iruditu zait behintzat.

Eta dena esateko, etxera gindoazela, gelditu eta zera esan diot:

-Aizak, Martin, berriro pixontzi bat naizela aipatzen badidak, pistolarena kontatuko zioat jende guztiari.

Isildu egin da eta burua makurtu du, amorratuta. Eta nik ehundako poza sentitu dut. Orain badakit mehatxurik ez didala berriro egingo, kontu gehiagorekin ibili beharko duela ni bezalako neska handiarekin.

Amona, eskerrik asko zure aholkuarengatik. Beti bezala, zuri idazten bukatzen dudanean soluzioa datorkit burura. Badakit ez dela erabat nik asmatutako irtenbidea, erabaki hori hartzen lagundu nauzula, baina hala ere harro nago nire buruarekin. Zeruan zu bezalako amona bat izatea sekulako mauka da niretzat.

Zu, segi lasai zeruko hegazkinen trafikoa zuzentzen eta, tarteka, nire gutunei kasu egin, oraingo honetan bezala.

Nik agintzen dizut Jeronimo gardantxiloari ez zaiola inoiz alpisterik faltako, ezta geranioei ura ere, eta ni zintzo izaten saiatuko naizela, nahiz eta tarteka zuri gutunak zuzendu behar.

Zure argazkiari musu bat eman eta ohera noa.

Adiorik ez.

Zure lholdi.